

## **Innobasque, Mondragon Unibertsitatea eta Sport Mundi elkartu egin dira laugarren sektorea sustatu eta enpresa sozialaren sorrera bultzatzeko**

2010/10/18

Berrikuntzaren Euskal Agentzia -Innobasque-, Mondragon Unibertsitatea –MU- eta Sport Mundik elkarlanerako hitzarmen bat sinatu dute laugarren sektorea sustatu eta enpresa sozialaren sorrera bultzatzeko. Hitzarmena, Innobasqueko Zuzendari Orokorra den Jose María Villatek, MUko Enpresagintza Fakultateko dekanoa den Lander Belokik, eta Sport Mundiko Lehendakaria den Txema Olazabalek sinatu dute.

Hitzarmen honen helburua, erakundeen arteko lankidetzaren marko bat zehaztea da, berrikuntzaren arloko ekimen, mezu, estrategia eta planetan elkarrekin joateko; baita berrikuntza sozialarekin lotutako jarduerak garatzeko, EGEren printzipioak aplikatu enpresa-eraldaketarako eta gizarte ekintzailetasun aurreratua eta negozio inklusiboak garatzea.

Koordinazio hau bultzatzeko asmoz, hiru erakundeek foro eta lan talde bakoitzeko ordezkariak edukiko dute. Foro eta lan talde hauetan laugarren sektorea sustatzeko programa eta estrategiak garatuko dira.

### **Sport Mundi Eguna – Surf Edition**

Chillida Lekun egindako prentsurrekoan Sport Mundi Eguna – Surf Edition ere aurkeztu zen; Sport Mundi, MU eta Innobasquek sustatutako gizarte asmoa duen kirol ekimena da hau, hiru aldeek sinatutako hitzarmenaren lehen emaitza da.

Hitzarmena sinatu zeneko argazkiak:

<http://www.flickr.com/photos/enpresagintza/sets/72157625154966254/>

